



ZIRRIBORROA

AZKOITIKO UDALERRIAN AUZOLANA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

1. artikulua.-Ordenantzaren xedea

Ordenantza honek, Azkoitiko udalerrian auzolanaren araubidea arautzea eta zehaztea du helburu.

Zentzu honetan, Ordenantza honen eraginetarako, Auzolanaren definizioa honako hau da: Azkoitiko udalaren ekimenez, edota azken honek baimenduta, herritarrek borondatezko eran egindako prestazio, lan eta zerbitzuak, beti ere udalaren eskumenen barruan egongo direlarik.

Auzolana, herri honen landa eremuko komunitateen ohituretan oinarritzen da, eta gaurko legerian arautzen da, hain zuzen Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araudiaren 1.h) artikuluan eta martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretu Legegileren 128 eta 129 artikuluetan. Era honetan, prestazio honek izaera publikoa du

Gaur egun, auzolanaren betebeharra Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 18.1.d) atalean arautzen da, herritarren eskubide eta betebeharrak xedatzerakoan.

2. artikulua.-Lanak

Ordenantza honen ondorioetarako, udal eskumeneko eta interes publikoko edozein ekimen ahal izango da auzolanaren xedea, horien artean:

- Hondaturiko eremuak berreskuratzea
- Ondarea birgaitzea
- Landa eremuak mantentzea
- Gizarte izaerako prestazioak ematea
- Kultura eta aisialdiko ekintzak garatzea
- etab.

Era guztietan, artikulua honetan aipatzen diren xedeak adibide soilak dira, eta zerrenda ireki bat osatzen dute. Beraz udalaren esku geratuko da kasuz kasu, Auzolaneko xedea finkatzea eta bere kasuan, zabaltzea, beti ere bere eskumeneko gaiak izan behar dutelarik.

3. artikulua.-Auzolanean parte hartuko duten herritarrek

Auzolanean parte har dezakete Azkoitiko udalerrian erroldatutako pertsona guztiek, 16 urtetik aurrera. Adin txikien kasuan, gurasoen baimena beharrezkoa izango da.



4. artikulua.- Auzolanaren antolaketa

Auzolanaren antolakuntza, dagokion prozesu parte hartzailearen emaitza izango da. Era honetan:

- Herritarrek aukera izango dute egokiak iruditzen zaizkien auzolanerako proposamenak luzatzeko udalak helburu honekin urtero antolatuko dituen foroetan. Foro hauek, herri gunean zein auzoetan zabalduko ditu udalak helburu honekin.

- Udalak, aipatu foroetan herritarrekin kontsultatu ondoren, urteko auzolanak aukeratzeko irizpideak onartuko ditu, eta horien arabera aukeratuko ditu sustatu behar diren urte bakoitzeko auzolan proiektuak.

- Dagokion udal zerbitzuak gauzatuko du proiektu bakoitzari buruzko txostena, non agertuko diren proiektuaren xedea, epea, kosteak, eta gainontzeko informezioa.

- Behin proiektuak aukeratuz gero, eta dagokion txosten teknikoa egin ondoren, Alkatezaren Dekretuaren bidez onartuko da, eta deialdi publiko bat luzatuko du Azkoitiko udalak, auzolanean parte hartzeko interesaturik dauden guztiek parte har dezaten ekimen bakoitzean.

5. artikulua.-Auzolanak nola egin.

Auzolanak egiterakoan, honako baldintza hauek errespetatuko dira:

5.1 Auzolanean parte hartzen duen herritar bakoitzak bere eskulana jarriko du, borondatezko eran.

5.2 Azkoitiko udalak, bere aldetik, beharrezkoa den tresneria, makinaria, eta gainontzeko baliabide materialak jarriko ditu. Halaber, behar izanez gero, bere pertsonalaren laguntza eskainiko du.

5.3 Auzolanean parte hartzen dutenek izan ditzaketen ezbeharrak estaltzeko, udalak dagokion aseguru hitzartuko du.

5.4 Bestaldetik, udalak dagokion aseguru estaldura bermatuko du, auzolanean ari direnek hirugarrenei sor diezazkiekeen kalteengatik .

5.5 Udalak ez du inolako ardurarik izango herritarren erantzukizun ezagatik gerta daitezkeen ezbehar edo istripuengatik. Kasu hauetan, sorturiko kalteen erantzukizuna ardura gabez jokatu duten herritarrena izango da.

6. artikulua.- Auzolanaren amaiera



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Lana edo zerbitzua amaitzerakoan, arloko teknikariak dagokion txostena egingo du. Bertan, honako hauek zehaztuko dira: parte hartzaile kopurua, auzolanean egindako lana edo zerbitzua, izandako gertakariak (bere kasuan), helburuen betetze-maila, eta orokorrean, interesa duen guztia.

7. artikulua.-Auzolanaren izaera.

Auzolana, [herritarren borondatezko ekimenean oinarritzen denez](#), ez dakar inolaz ere udalaren eta herritarren arteko lan harremanik.

Azkoitian, 2013ko uztailaren 23an